

Programa operatiboa

Europa
egiteko
modu bat

Programa operativo

Una manera
de hacer
Europa

2007-2013

EGEF FEDER

Eskualde Garapenerako Europar Funtsak

Fondo Europeo de Desarrollo Regional

Europak, eskualdeko politikaren esparruan, Batasunaren garapen harmoniatu, orekatu eta jasangarria bultzatzen du. Horretarako, beste hainbat tresnaren artean, Eskualde Garapenerako Europako Funtsa (EGEF) dauka. Garapen hori lortzeko lan egitea Ituneko 174. artikuluan ezarritako betebeharrak dira.

EGEF, batik bat, eremu hauetan saiatzen da erantzuna ematen Europako lehentasun eta helburuei:

- » Ezagutzaren berrikuntza eta ekonomia, I+G+Baren arloko gaitasunak hobetzearen bidez...
- » Ingurumena eta arriskuen prebentzioa, energia-eraginkortasunaren sustapena, hiri-garraio garbiaren sustapena...
- » Interes ekonomiko orokorreko garraio- eta telekomunikazio-zerbitzuetarako sarbidea, bigarren mailako sareak zabalduz eta enpresa ertain eta txikiak informazioaren eta komunikazioaren teknologikoetarako sarbidea handiago izan dezaten ahalbidetuz.

2007-2013 programazio-aldian, Euskal Autonomia Erkidegoa egitura funtsetan parte hartzen ari da, "Eskualdeko lehiakortasuna eta enplegua" helburuan; horrek esan nahi du elkarrekin finantzatzeko proposatu diren jarduketek bide eman behar dutela aldaketa ekonomiko eta sozialak aurreratzeko eta berrikuntza, enpresa-ekimena, ingurumenaren babesa, irisgarritasuna, egokitze-gaitasuna eta gizarteratzen lagunduko duten lan-merkatuen garapena sustatzeko.

Europa, en el ámbito de la Política Regional, impulsa el desarrollo armonioso, equilibrado y sostenible de la Unión. Para ello, se cuenta, entre otros instrumentos, con el Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER).

Trabajar para lograr este desarrollo es una obligación establecida en el artículo 174 del Tratado.

El FEDER se centra en dar respuesta a las prioridades y objetivos de Europa en los siguientes campos:

- » La innovación y economía del conocimiento a través de la mejora de las capacidades en I+D+i, ...
- » El medio ambiente y prevención de riesgos, el fomento de la eficiencia energética, la promoción del transporte urbano limpio, ...
- » El acceso a los servicios de transporte y telecomunicaciones de interés económico general mediante la ampliación de las redes secundarias y el mayor acceso de las PYMEs a las tecnologías de la información y la comunicación.

En el periodo de programación 2007-2013 la Comunidad Autónoma del País Vasco participa en los Fondos Estructurales en el objetivo "Competitividad regional y empleo" lo que significa que las actuaciones propuestas a cofinanciación deben permitir anticipar los cambios económicos y sociales y fomentar la innovación, la iniciativa empresarial, la protección del medioambiente, la accesibilidad, la capacidad de adaptación y el desarrollo de mercados de trabajo que favorezcan la integración.

2007-2013 aldirian, Bizkaiko udalek eta Bizkaiko Foru Aldundiak garatutako hogeita bat proiektu lagundu ditu EGEFek.

En el periodo 2007-2013 FEDER apoya una veintena de proyectos desarrollados por los Ayuntamientos de Bizkaia y por la Diputación Foral de Bizkaia.

Lisboako estrategia

Globalki lehiatzeko, Europar Batasunak ekonomia eraginkor eta moderno bat behar du. Helburu horrekin, Batasuneko estatuek helburu bat ezarri zuten Lisboan: Europar Batasuna, 2010a baino lehen, munduko ezagutzarik lehiakor eta dinamikoenean oinarrituriko ekonomia bihurtzea, ekonomikoki modu jasangarrian hazteko gai, enplegu gehiago eta hobeekin eta gizarte-koheren handiagoarekin.

Estrategia de Lisboa

Para competir globalmente la Unión Europea necesita una economía eficaz y moderna. Con este objetivo, los estados de la Unión fijaron en Lisboa un objetivo consistente en convertir la Unión Europea antes de 2010 en la economía basada en el conocimiento más competitiva y dinámica del mundo, capaz de crecer económicamente de manera sostenible con más y mejores empleos y con mayor cohesión social.

Europa 2020 Estrategia

Gaur egun, Lisboako Estrategiaren xedea indarrean dago oraindik ere Europa 2020 Estrategiaren planteamenduan. Estrategia hori egongo da 2014-2020 aldirian Egitura Funtsen finantzaketarekin sustatzen diren jarduketan oinarrian. Estrategia honen apustua hazkunde zentzudun, jasangarri eta integratzaile bat lortzea da.

Estrategia Europa 2020

En la actualidad el objetivo de la Estrategia de Lisboa sigue vigente en el planteamiento de la Estrategia Europa 2020, estrategia que inspirará las actuaciones que se impulsen con financiación de los Fondos Estructurales en el periodo 2014-2020. Esta Estrategia apuesta por conseguir un crecimiento inteligente, sostenible e integrador.

EGEF FEDER

Eskualde Garapenerako
Europar Funtsak
Fondo Europeo
de Desarrollo Regional

Zer da?

EGEFek laguntza ematen du jarduera ekonomikoen garapena harmoniatua, orekatua eta iraunkorra izan dadin, lehiakortasun-maila handia izan dadin, enplegu-maila eta ingurumenaren babes-maila handiak izan daitezten eta emakumeen eta gizonen artean berdintasuna izan dadin, hori guztia Batasuneko eskualdeen garapen-mailen arteko aldeak gutxitzeko helburuarekin.

¿Qué es?

El FEDER contribuye al desarrollo armonioso, equilibrado y duradero de las actividades económicas, a un alto grado de competitividad, a un nivel elevado de empleo y de protección del medioambiente y a la igualdad entre mujeres y hombres, todo ello con el objetivo de reducir las disparidades entre los niveles de desarrollo de las regiones de la Unión.

Lehentasunezko ardatzak

- 1 Ezagutzaren ekonomia eta enpresa-berrikuntza eta garapena
- 2 Ingurumena eta arriskuen prebentzioa
- 3 Energia-baliabideak eta garraio-zerbitzuetarako sarbidea
- 4 Tokiko eta hiriko garapen jasangarria
- 5 Laguntza teknikoa

Politika komunitarioak eta zeharkako alderdiak

Europako baterako finantzaketa baliatu ahal izateko, errespetatu egin behar dira kontratazioaren arloko politika komunitarioak, estatu-laguntzak eta erregelamendu komunitarioek aplikatu lezaketen oro.

Edonola ere, Europan elkarrekin finantzatzeko diren jarduketetan beti begiratu behar dira ekintza komunitarioaren helburu diren zeharkako bi alderdi. Hau da, aukeraberdintasunaren printzipioa errespetatzea eta ingurumena errespetatzea.

Alde horretatik, frogatu behar da ekintzak garatzean kontuan hartu direla adierazitako printzipio horiek, eta errespetatu egin behar direla kontuan hartuz eraman direla aurrera ekintzok.

Ejes prioritarios

Economía del conocimiento e innovación y desarrollo empresarial

Medioambiente y prevención de riesgos

Recursos energéticos y acceso a servicios de transporte

Desarrollo sostenible local y urbano

Asistencia técnica

Políticas comunitarias y aspectos transversales

Para acceder a la cofinanciación europea es preciso respetar las políticas comunitarias en materia de contratación, ayudas de estado y todo lo aplicable por los distintos reglamentos comunitarios.

En todo caso es necesario observar siempre en las actuaciones con cofinanciación europea dos aspectos de carácter transversal y que constituyen objetivos de la acción comunitaria. Se trata de respetar el principio de igualdad de oportunidades así como el respeto al medio ambiente.

En este sentido, toda acción deberá poder demostrar que en el desarrollo de la misma ha tenido en cuenta los principios anteriores y que dichas acciones se han llevado a cabo atendiendo al cumplimiento de ese respeto.

1

2

3

4

5

LEIOA
LEIOANET XXI Hiri digitala

AULESTI
Murla egitasmoa. Zerbitzu eta teknologia berrien enpresarako zentroa

ALONSOTEGI
Alonsotegin bizikletan ibiltzeko sarea

PORTUGALETE
"La Benedicta" parkea proiektua

MARKINA-XEMEIN
Esperanza y Cia SA lantegiaren eraisketa

KARRANTZA
Abandonatutako mea-espazioak berreskuratzea (Angela meategia)

GALDAKAO
Upo mendi-aterpea handitzea

MUNGIA
Bizikleta-zaleak ibiltzeko kale abegitsuen plana

AMOREBIETA-ETXANO
Amorebietako udal sarea Zubietako industria-poligonoarekin lotzeko bizikleta bidea

ARRIGORRIAGA
Hiriguneko aparkamendu gomendatuzko sistema mistoa eta bizikleta-erreiarekiko lotura

LEA IBARREKO MANKOMUNITATEA
Energia berriztagarrien interpretazio-zentroa

LOIU
Udal instalazioetan eguzki energia darabilten sistema termikoak instalatzea

ARANTZAZU
Udal ekipamendu sozio-kultural baten egikaritzea.

BERMEO
Alde zaharra berpizteko herri egitasmoa

ORDUÑA
Urduña hiriko alde zahar historikoa Birgaitzeko Plan Berezia garatzea.

GERNIKA-LUMO
Eraikuntzan Teknologia Berriak baliatzeko Ikastetxearen eraikuntza Madariene baserriaren birgaitzea erabiltzeko Madariene

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

AMOREBIETA / ERMUA
Automotive Intelligence Center

BILBAO
Espiritu ekintzaile eta berritzailea sustatzea eta bultzatzea

GETXO
Bizkaia digital

BILBAO
Hondakinen tratamendurako zentroak.

Bizkaiko ondare historiko eta kulturalaren inguruko jarduerak

FORUA
Antzinako erromatar egonlekua berreskuratzea

BILBAO
Bizkaiko Arkeologia Museo

KORTEZUBI
Santimamiñeko kobak balioztatzea

MUSKIZ
Muñatones gaztelua

1 LEIOA
LEIOANET XXI Ciudad digital

2 AULESTI
Proyecto MURLA
Centro para empresas de servicios y nuevas tecnologías

3 ALONSOTEGI
Red ciclable de Alonsotegi

4 PORTUGALETE
Proyecto Parque "La Benedicta"

5 MARKINA-XEMEIN
Demolición de la Factoría de la Esperanza y Cia.S.A.

6 CARRANTZA
Recuperación de espacios mineros abandonados (Mina Ángela)

7 GALDAKAO
Ampliación refugio monte UPO

8 MUNGIA
Plan de calles amables para la circulación ciclista

9 AMOREBIETA-ETXANO
Conexión ciclable de la red municipal de Amorebieta con el polígono industrial Zubieta

10 ARRIGORRIAGA
Estacionamiento urbano mixto disuario y conexión carril bici

11 MANCOMUNIDAD DE LEA IBARRA
Centro de interpretación de energías renovables

12 LOIU
Instalación solar térmica en las instalaciones municipales

13 ARANTZAZU
Ejecución de un equipamiento municipal socio-cultural

14 BERMEO
Revitalización urbana del casco viejo

15 ORDUÑA
Desarrollo del Plan Especial de Rehabilitación del casco histórico de la ciudad de Orduña

16 GERNIKA-LUMO
Construcción Escuela Nuevas Tecnologías en la construcción: rehabilitación del caserío Madariene

DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA

17 AMOREBIETA / ERMUA
Automotive Intelligence Center

18 BILBAO
Promoción e impulso del espíritu emprendedor e innovador

19 GETXO
Bizkaia digital

20 BILBAO
Centro de tratamiento de residuos.

21 Actuaciones en el patrimonio histórico cultural de Bizkaia

FORUA
Recuperación antiguo asentamiento romano

BILBAO
Museo de arqueología de Bizkaia

KORTEZUBI
Puesta en valor de las Cuevas de Santimamiñe

MUSKIZ
Castillo Muñatones

EGEF FEDER 2007-2013

Eskualde Garapenerako Europar Funtsak
Fondo Europeo de Desarrollo Regional



1 Ezagutzaren ekonomia eta enpresa berrikuntza eta garapena

Economía del conocimiento e innovación y desarrollo empresarial

2 Ingurumena eta arriskuen prebentzioa


Medioambiente y prevención de riesgos

3 Energia-baliabideak eta garraio-zerbitzuetarako sarbidea

Recursos energéticos y acceso a servicios de transporte

4 Tokiko eta hiriko garapen jasangarria

Desarrollo sostenible local y urbano



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



Europar Batasuna
Unión Europea

Zer daukate batean bidegorriek, hondakinak tratatzeko plantek eta arkeologia-museoek?

Nahiz eta txiste bat edo asmakizun bat dirudien, oso kontu serioa da hori, hortxe jokatzeko baitugu gure oraina eta geroa Europar Batasuna osatzen dugun guztiok. Eskualde Garapeneko Europako Funtsaren finantzaketarekin, gure ingurunearen baldintzak hobetzeko eta Europako eskualdeak bizitzeko, inbertitzeko eta lan egiteko leku erakargarri bihurtzeko proiektu asko sustatzen dira. 2007-2013 aldian, Bizkaiko udalek eta Bizkaiko Foru Aldundiak garatutako hogeitabat proiektu lagundu ditu EGEFek. Ondoren, proiektu horien berri ematen da, jarduera-arloaren arabera bilduta.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak

Informazioaren eta komunikazioaren teknologien esparruan proiektuak garatzeak eta horien erabilera sustatzeak bide ematen du gizarte aurreratuago bat izateko eta bizitza pertsonala eta lana bateragarri egiteko.

Desarrollar proyectos en el ámbito de las tecnologías de la información y la comunicación y promover su utilización permite contar con una sociedad más avanzada y posibilitar la conciliación de la vida personal y laboral.



Oro har biztanleriaren artean eta udal kudeaketan asko erabiltzen diren aplikazioen garapenean IKTak sustatzea, herritarrek udal zerbitzuetara gerturatu ahal izan daitezten eta edozein ordutan eta etxetik bertatik zerbitzu azkar bat eman ahal izan dadin. Horixe da BiscayTIK-en helburua. El impulso de las TICs tanto entre la población en general como en el desarrollo de aplicaciones de amplia utilización en la gestión municipal que permita acercar a la ciudadanía los servicios municipales, permitiendo un rápido servicio a cualquier hora y en su propia casa. Este es el objetivo de BiscayTIK.



LEIOANET XXI, hiri digitala. Proiektu honen xedea da IKTen aukerak baliatzea, Leioako Udalak herritarrei, enpresei eta udalerriko ehun sozioekonomikoa eratzten duten gainerako eragileei ematen dizkien zerbitzuak gerturatzeko eta hobetzeko. Leioanet XXI, ciudad digital. Este proyecto tiene por objetivo aprovechar las posibilidades de las TICs para acercar y mejorar los servicios prestados por el Ayuntamiento de Leioa a la ciudadanía, las empresas y demás agentes que conforman el tejido socioeconómico del municipio.

¿Qué tienen en común un carril bici, una planta de tratamiento de residuos y un museo arqueológico?

Esto, que parece un chiste o una adivinanza, es un tema muy serio en el que todas las personas que conformamos la Unión Europea nos jugamos nuestro presente y nuestro futuro. Con la financiación del Fondo Europeo de Desarrollo Regional se impulsan muchos proyectos destinados a mejorar las condiciones de nuestro entorno y a hacer de las regiones europeas lugares atractivos para vivir, invertir y trabajar. En el periodo 2007-2013 el FEDER apoya una veintena de proyectos en Bizkaia desarrollados tanto por sus Ayuntamientos como por la Diputación Foral de Bizkaia. A continuación te contamos estos proyectos agrupándolos por áreas de actividad.


Tokiko eta hiriko garapen jasagarria

Udal ekipamenduen garapena eta alde zahar eta historikoen birgaitze eta leheneratzea sustatzeak bide ematen du herritarrei kalitatekoak eta turismorako egokiak diren azpiegitura eta zerbitzuak eskaintzea. Horren barruan, honako hauek aurki ditzakegu:

Impulsar el desarrollo de equipamientos municipales y la rehabilitación y recuperación de cascos viejos e históricos permite dotar a la ciudadanía de infraestructuras y servicios de calidad y atractivos para el turismo. En este ámbito encontramos:



Arantzazun ekipamendu sozio-kultural bat egitea kirol eta kultur jardueren garapenerako instalazio batzuk sortzeko. La realización de un equipamiento socio-cultural en Arantzazu para crear unas instalaciones para el desarrollo de actividades deportivas y culturales.



Urduña hiriko alde zahar historikoa birgaitzea. La rehabilitación del casco histórico de la ciudad de Orduña.



Bermeoko alde zaharra berpiztea. La revitalización del casco viejo de Bermeo



Portugaleteko Benedicta parkea; mea-ustiategi zaharretako lursailak 40.000 m² baino gehiagoko jolas eta aisialdirako parke bihurtzea. El Parque de la Benedicta en Portugalete; conversión de los terrenos de antiguas explotaciones mineras en un parque de esparcimiento y recreo de más de 40.000 m².

Ikerketa, berrikuntza eta enpresen sorkuntza

Funtsezko hiru elementu gure lurraldea garatzeko eta gure posizio lehiakorrari eusteko.

Tres elementos sustanciales para el desarrollo de nuestro territorio y para mantener nuestra posición competitiva.



Inteligentzia-zentro bat abian jartzea automozioaren sektorerako (AIC) La construcción y puesta en marcha de un centro de inteligencia para el sector de la automoción (AIC)

Investigación, innovación y generación de empresas



Espiritu ekintzaile eta berritzaileak sustatzea. Jarduketa horren bidez, Bizkaiko gazteak animatu egiten dira beren bizitza profesionala enpresa propioa sortuz edo ikerketaren eta garapen teknologikoaren esparruan gara dezaten.

La promoción del espíritu emprendedor e innovador. Esta actuación permite animar a la juventud de Bizkaia a desarrollar su vida profesional creando su propia empresa o en el ámbito de la investigación y el desarrollo tecnológico.

Mugikortasun jasagarria

Garraibide alternatiboak gehiago erabilita gure kontsumo energetikoa murriztu eta ingurumena zaintzen dugu.

Potenciar medios alternativos de transporte permite disminuir nuestro consumo energético y preservar el medioambiente.



Alonsotegin bizikletan ibiltzeko sarea, 1. tarte, aisialdi-gunea. Red ciclable de Alonsotegi, tramo 1, área de esparcimiento.



Amorebietako udal sarea Zubietako industria-poligonoarekin lotzeko bizikleta bidea. Conexión ciclable de la red municipal de Amorebieta con el polígono industrial de Zubieta.



Mungian bizikleta-zaleak ibiltzeko kale abegitsuen plana. Plan de calles amables para la circulación ciclista en Mungia.




Hiriguneko aparkamendu gomendatuzko sistema mistoa eta bizikleta-erreiarekiko lotura. Estacionamiento mixto disuasorio en Arrigorriaga y conexión con carril bici.

Jadanik erabiltzen ez diren azpiegiturak hobetzea

Mejora de infraestructuras en desuso

Gaur egun erabiltzen ez diren eta gaizki kontserbaturik dauden eraikinak berriro funtzioen bat bete dezaten birgaitzea baliagarria da zona hori ingurumen aldetik lehengoratzeko eta ekimen berriak sustatzeko.

Rehabilitar edificaciones actualmente en desuso y mal conservadas para que vuelvan a desarrollar una función permite la recuperación medioambiental de la zona y el impulso de nuevas iniciativas.




2 Murla egitasmoa, Aulestin, erabiltzen ez den zerrategi zahar bat baitago han. Planteatutako proiektuari esker, gaur egungo instalazioak eraitsi ahalko dira, eta, hala, zona hori ingurumen aldetik hobetuko da.

Proyecto Murla, en Aulesti, donde existe una antigua serrería en desuso. El proyecto planteado permitirá demoler las actuales instalaciones, con lo que se mejorará medioambientalmente la zona.



5 Esperanza y Cia SA lantegia eraistea Markinan, eta lantegia kokatua dagoen orubea ingurumen aldetik lehengoratzeko. Jarduketa hori amaituta, enpresa berritzaileentzako zentro bat eraiki da.

Demolición de la factoría la Esperanza y Cia, S.A., en Markina, así como la recuperación ambiental del solar en el que se ubica. Finalizada esta actuación se ha desarrollado la construcción de un centro de empresas innovadoras.




16 Gernikan, Madariene baserria birgaitzea, eraikuntzako teknologia berrietan prestatzeko zentro gisa erabiltzeko. Zentro hori sektore horretako profesionalak prestatzeko da. Rehabilitación del caserío Madariene en Gernika para su utilización como Centro de formación de Nuevas Tecnologías en la construcción. Este centro está dirigido a la formación de profesionales de este sector.

Ingurumena lehengoratzeko eta hondakinak balioztatzea

Recuperación medioambiental y valorización de residuos

Energia berriztagarriak erabiltzeak bide ematen du energia zentzu handiagoz erabiltzeko, bai eta sortzen ditugun hondakinak balioztatzeko ere. Egitasmo hauek dute helburu hori:

Utilizar energías renovables permite un uso más racional de la energía, al igual que valorizar los residuos que generamos. Proyectos con este objetivo son:




6 Karrantzan abandonatuta dauden mea-espazioak berreskuratzea (Angela meategia) Recuperación de espacios mineros abandonados de Karrantza, mina Ángela.



20 Hondakinen tratamendurako zentroak eraikitzea. Construcción de centros de tratamiento de residuos.



7 Galdakaon, Upo mendiko aterpea handitzea. Ampliación del refugio del monte UPO de Galdakao.



11 Lea Ibarra mankomunitatean energia berriztagarrien interpretazio-zentro bat egitea, haurtzarotik kontzientziatu ahal izateko uzten dugun karbono-arrastoan pentsatzearen garrantziaz. Un centro de interpretación de energías renovables en la Mancomunidad de Lea Ibarra que permita concienciar desde la infancia sobre la importancia de pensar en la huella de carbono que dejamos.



12 Loiuako udal eraikinetan eguzki-energia termikoa erabiltzeko ekipamenduak instalatzea. La instalación en edificios municipales de Loiu de equipamientos para la utilización de energía solar térmica.

Ondare historikoa


Patrimonio histórico

Eta hasieran planteatutako galderari emandako erantzunaren osagarri, baieztatzea EGEFen finantzaketarekin, aurreko guztiez gain, Bizkaiko ondare historiko-kulturalaren inguruko jarduketak garatzen ari direla.


Y, para completar la respuesta a la pregunta planteada al principio, confirmar que con la financiación del FEDER se están desarrollando, además de todas las anteriores, actuaciones en el patrimonio histórico-cultural de Bizkaia.



21 Foruko erromatar egonlekua berreskuratzea. Recuperación del asentamiento romano de Forua.



21 Muñatones gaztelua hobetzea. Mejora del castillo de Muñatones.



21 Santimamiñeko kobak barrutik saneatzeko eta balioztatzeko proiektua. Proyecto de saneamiento interior y puesta en valor de las cuevas de Santimamiñe.



21 Lezamako tren-geltoki zaharra Bizkaiko Arkeologia Museo gisa birgaitzea. Rehabilitación de la antigua estación del ferrocarril de Lezama como Museo Arqueológico de Bizkaia.

Argitalpen honetan, Bizkaiko Lurralde Historikoko administrazio publikoek Eskualde Garapeneko Europako Funtsaren baterako finantzaketarekin egin dituzten lanak hartu dira batez ere kontuan. Horrez gainera, badira Bizkaian eragina duten beste zenbait proiektu EGEFen baterako finantzaketa dutenak eta beste administrazio publiko batzuk garatzen ari direnak.

Esta publicación se centra en las operaciones que, con cofinanciación del Fondo Europeo de Desarrollo Regional, se desarrollan por Administraciones Públicas del Territorio Histórico de Bizkaia. Existen más proyectos con impacto en Bizkaia que cuentan con cofinanciación del FEDER y son desarrollados por otras Administraciones Públicas.

“Europa egiteko modu bat”
“Una manera de hacer Europa”

EGEF
FEDER
2007-2013



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



Europar Batasuna
Unión Europea

